

[Eusk/Cast] Presidencias navarras y ferrocarril

PABLO LORENTE ZAPATERÍA :: 23/06/2021

La pasada semana en sede parlamentaria, la actual Presidenta Chivite se reafirmó en seguir adelante en la imprescindible construcción del TAV/TAP

[Euskara]

NAFARROAKO PRESIDENTEAK ETA TRENBIDEA

Joan den astean, Parlamentuan, egungo presidente Chivitek berretsi egin zuen AHT/PHT eraikitze bidean aurrera jarraitzea, Nafarroak bere garapenerako ezinbesteko inbertsioa duelakoan. Honaino ezer berririk ez, azken 25 urteetan foru presidentek errepikatu dituzten betiko **propaganda** eta **gezurrak**.

Sanz presidenteak AHT/TAP eraikitze hitzarmena sinatu zuen Blanco ministroarekin, baina ez zen ez epeetan ez helburuetan bete; eta Nafarroako trenbideak zerbitzuen eta langileen odoljarioarekin jarraitu zuen, murrizketekin eta pribatizazioekin. **Barcina presidenteak** alderdi politikoen lege kanpoko finantzazio irregularrei lotutako **bankuek eta eraikuntza-enpresen** trenaren diseinuarekin jarraitu nahi izan zuen, baina motel, oso motel.

Eta **Barkos presidente** iritsi zen "aldaketaren" gobernura, eta, M. Rajoyren gobernuaren babesarekin, **AHTko lanak aurreko 20 urteetan baino gehiago azkartu** ziren. Eta hori indarrean zegoen Corellarrak eta Pepinek sinatutako hitzarmenik gabe. Hori ez zen aldaketa bat izan, hori denoi ziria sartzea izan zen. Eta duela bi urtetik hona, gure erkidegoaren buru den **Chivite cirbonerak**, Estatuko Gobernu presidentearen antzeko gobernu-koalizio batean, **aurrera jarraitzen du AHT/TAP inposaketarekin**.

Trena benetan hain ona bada, zergatik Corellako batek eta Cintruenigoko beste batek **ez dute ezer egin Castejón - Soria linea berriz irekitzeko?** Zergatik ez dute holako neurri bat hartu haiek jaio eta bizi diren herriei eta herritarrei mesede egiteko? Zergatik ez du, 25 urte hauetan, lau foru presidentetako inork Nafarroako **trenbide zerbitzua sortu, mantendu eta hobetzeko** hitzarmenik sustatu eta babestu? Zergatik ez dute deus egin egun pertsonen zein salgaien garraiorako gutxiegi erabiltzen den trazatua hobetzeko?

AHT/TAP babestu duten, babesten duten eta babesten jarraituko duten Nafarroako presidentek ez dute azken 25 urteotan **azpiegitura hori eraikitze beharra frogatzen duen txosten**, dokumentu edo azterketarik **aurkeztu**.

Espainiako eta Europako kontu-auzitegiek, unibertsitateko hainbat zientzialari eta irakasleren azterlanek, trenbidea garraio publiko eta sozial gisa defendatzeko plataformek, zenbait sindikatuk, talde ekologistek eta **Sustrairen Tren Publiko eta Sozialaren** alternatibak erakutsi dute Nafarroan herritarrok, jarduera ekonomikoek, ingurumenak eta landa-inguruneak behar duguna **egungo trenbide-azpiegitura aprobetxatzea eta hobetzea dela**, Tuteran eta Iruñean AHT/TAPerako geltoki berriak egin gabe.

Klimaren, energiaren eta mineralen krisiak, osasun publikoan eta ingurumenean gaineko eragin larriak eta gure egungo kontsumo-eredua kolapsatzeko arriskua izan arren, gobernuen buruek **benetako ekozidak** izaten jarraitzen dute. Ekozida horiek enpresen eta kartelen interesak baino ez dituzte ordezkatzeko eta defendatzeko, baliabide publikoak etengabe xahutuz eta bizitzarako **hain beharrezko diren zaintza-, hezkuntza-, osasun- eta zerbitzu sozial sistemak eraitsiz**.

Sinatuta: Pablo Lorente Zapatería, Sustrai Erakuntza fundazioaren kidea.

Nafarroan, 2021ko ekainaren 23a.

Sustrai Erakuntza Fundazioa

Web orrialdeak: www.sustraierakuntza.org eta www.fundacionsustrai.org

Posta elektronikoa: sustrai@sustraierakuntza.org

[Castellano]

Presidencias navarras y ferrocarril

La pasada semana en sede parlamentaria, la actual Presidenta Chivite se reafirmó en seguir adelante en la imprescindible construcción del TAV/TAP como gran inversión que necesita Navarra para su progreso y no quedarse aislada. Hasta aquí nada nuevo tanto en la **propaganda** como en las **mentiras** que llevan diciendo en los últimos 25 años las presidencias forales.

El **presidente Sanz** con el ministro Blanco firmaron un convenio de construcción del TAV/TAP que ni se ha cumplido en plazos ni en objetivos, mientras el ferrocarril en Navarra seguía su hemorragia de servicios y personal, con recortes y privatizaciones. Con la **presidenta Barcina** continuó el guion diseñado, pero avanzando muy poquito en la construcción de obra civil de la infraestructura del avión sobre raíles, **que imponen principalmente desde despachos bancarios y empresas de construcción**, vinculadas casi todos y todas a financiaciones irregulares e ilegales de partidos políticos defensores del TAV/TAP.

Y llegó la **presidenta Barkos** al frente del gobierno "del cambio" y con el apoyo del gobierno de M. Rajoy, propició que en cuatro años se avanzaran las obras más que en los casi 20 años anteriores. Y sin el convenio vigente firmado por el Corellano y Pepín. Eso no es un cambio es un cambiazco. Y desde hace dos años la **Cirbonera Chivite** que preside esta nuestra comunidad, en una coalición de gobierno, similar por cierto a la del Presidente del Gobierno del Estado, **sigue adelante con la imposición del TAV/TAP**.

Si de verdad es tan bueno el ferrocarril, que no el TAV/TAP, ¿por qué uno de Corella y otra de Cintruénigo **no han hecho nada por reabrir la línea Castejón - Soria**, sus pueblos de nacimiento y residencia se verían beneficiados por tal medida? ¿Por qué en estos 25 años no se ha fomentado y apoyado desde las cuatro presidencias forales convenios para **crear, mantener y mejorar el servicio ferroviario en Navarra en el actual trazado**, que está

infrautilizado tanto para el transporte de personas como de mercancías?

El presidente y las presidentas navarras que han apoyado, apoyan y seguirán apoyando el TAV/TAP **no han presentado un solo informe**, documento o estudio que **demuestre la necesidad** de la construcción de dicha infraestructura en estos últimos 25 años.

Las decenas de informes a nivel de tribunales de cuentas, españoles y europeos, de varios estudios e informes de científicos y docentes universitarios, de plataformas en defensa del ferrocarril como transporte público y social, algunos sindicatos, grupos ecologistas y **nuestra propuesta desde Sustrai del TPS frente al TAV/TAP**, entre otras, hemos demostrado que lo que necesitamos las personas, empresas y el medio ambiente y rural en Navarra es **aprovechar y mejorar la actual infraestructura ferroviaria** no haciendo nuevas estaciones en Tudela e Iruñea precisamente para el TAV/TAP.

Con la que está cayendo y va a venir por la **crisis climática, energética y de minerales**, afectando a la salud pública y medioambiental como antes no se había conocido y colapsando de forma irreversible y en breve plazo nuestro actual modelo de consumo, seguimos teniendo al frente de los gobiernos a **verdaderos ecocidas** que solo representan y defiende los intereses de empresas y cárteles de la corrupción continuada y continua de los recursos públicos que expolían sin ningún rubor, propiciando con ello los **recortes en sanidad, educación, cuidados y servicios sociales y públicos** tan necesarios para la vida de todas y todos.

Firmado: Pablo Lorente Zapatería, miembro de la fundación Sustrai Erakuntza.

En Navarra, a 23 de junio de 2021.

Fundación Sustrai Erakuntza

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-presidencias-navarras-y>